

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1334

EBAZPENA, 2020ko abenduaren 30ekoa, Justizia zuzendariarena, espetxeetan edo baldintzapeko askatasunean dauden zigortuak eta askatasunaz gabetzeko zigorraren betearazpena etenda duten zigortuak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuetarako dirulaguntzen deialdia ebazten duena.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Lan eta Justiziako sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Aginduaren bidez (2020ko ekainaren 29ko EHAA, 126. zk.), espetxeetan edo baldintzapeko askatasunean dauden zigortuak eta askatasunaz gabetzeko zigorraren betearazpena etenda duten zigortuak gizarteratzeko eta laneratzeko 2020an burututako proiektuetarako dirulaguntzen deialdia arautzen duten oinarriak ezarri ziren.

Bigarrena.– Eskabideak aztertu ondoren, eta deialdia egin zuen Aginduaren 11. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz, Balorazio Batzordeak, 2020ko irailaren 28an bilduta, aurkeztutako laguntza-eskabideak baloratzeko txosten-proposamena onartu zuen.

Hirugarrena.– Gutxienez 30 puntu lortu dituzten eskabideei dagozkien dirulaguntzen zenbateko teorikoak batu ondoren, baturak aurrekontu-erabilgarritasunaren muga gainditu du, eta, beraz, baietsitako eskabide bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa birdoitu behar izan da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia Zuzendaritzako titularra da eskatutako dirulaguntzak ematea edo ukatzea, bai eta dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoak ere xede duen ebazpena emateko organo eskuduna, horrela ezarrita baitago Lan eta Justiziako sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Aginduaren 14. artikuluan (agindu horren bidez, espetxeetan edo baldintzapeko askatasunean sartuta dauden eta zigor askatasun-gabetzaillearen betearazpena etenda duten zigortuak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuetarako dirulaguntzen deialdia egiten da).

Bigarrena.– Deialdi-aginduaren 12. artikulua ezartzen du zer irizpideren arabera baloratu behar diren aurkeztutako eskabideak, eta xedatzen du dirulaguntza emateko, aipatutako irizpideen arabera, eskabideak 30 puntuko gutxieneko puntuazioa gainditu beharko duela.

Hirugarrena.– Honela ezartzen da hitzez-hitz deialdi-aginduaren 13.2 artikuluan balorazio-irizpideetan 30 puntu baino gehiago lortu dituzten eskabideen proiektuei dagokien dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko metodoa:

«a) Eskabideak puntuaziorik altuenetik txikienera antolatuko dira. Eskabideren batek 60 puntu (gehieneko puntuazioa) lortzen baditu, eskatutako dirulaguntza zenbatekoaren ehuneko ehuneko (% 100) dirulaguntza ehuneko teorikoa aplikatuko zaio. artikulua honen lehen apartatua adierazitakoaren arabera, kontuan hartu behar da aldez aurretik birdoitu egin behar direla erakundeek eskatutako kopuruak, dirulaguntzarik jaso ezin duten gastuei edo proiektuekin lotuta ez dauden gastuei dagokienez. Gainerako eskaerei balorazio irizpideetan lortutako puntuen arabera ehuneko proportzionala aplikatuko zaie, hurrenez hurren.

b) Kasu bereziak:

1.– Dirulaguntzen zenbateko teoriko guztiak batu eta aurrekontuen diru-zuzkidura gain ditzen bada, zenbateko guztiak proportzionalki egokituko dira, eta dirulaguntza teoriko guztiei ehuneko berbera jaitsiko zaie. Ehuneko hori honela kalkulatu da: diru-zuzkidura zati zenbateko teoriko guztia.

2.– Dirulaguntzen zenbateko teoriko guztiak batu eta aurrekontuen diru-zuzkidura ez bada gainditzen, berriz, soberakoa eskabide guztien artean banatuko da proportzionalki, aurreko paragrafoan ezartzen den prozedura berari jarraituta. Horrela kalkulatu zenbatekoak ezingo du inondik inora gainditu diruz lagun daitekeen gastuaren ehuneko ehuna (% 100).»

Bestalde, deialdi-aginduaren 13. artikuluko 3. paragrafoan ezartzen denez, proiektu bati gehiezin 50.000 euroko dirulaguntza eman ahal izango zaio.

Horregatik guztiagatik, eta deialdia egiten duen aginduaren 11. artikuluan horretarako izendatutako Balorazio Batzordeak onartutako balorazio-proposamenaren txostena ikusita, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean zerrendatzen diren erakunde eta proiektuei bertan agertzen diren dirulaguntzak ematea.

Bigarrena.– II. eranskinean zerrendatutako dirulaguntzen eskabideak ezestea, kasu bakoitzean adierazitako arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, deialdi-aginduaren 14. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Laugarrena.– Dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi eta hurrengo 5 egunetan erakunde onuradunak kontrakoa adierazten ez badu dirulaguntza onartu egin duela ulertuko da.

Bosgarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Saileko Justizia sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 30a.

Justizia zuzendaria,
EUGENIO ARTECHE PALOMAR.

2021eko martxoaren 5a, ostirala

I. ERANSKINA
EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA

Esp. Zkia.	Entidad	IFK	Proiektua	Puntuazioa	Dirulaguntzaren zenbatekoa (euro)
1	Asociación Módulo de Asistencia Psico-Social Auzolan	G48212468	Espetxe-zigorrak dituzten toxikomanoentzako neurri alternatiboak	32	7.316
2	Asociación Zubietxe para personas en situación o riesgo de exclusión	G48545610	Zigortuak eta presoak gizarteratzea eta laneratzea EAEn.	51,13	9.303
3	Comisión Ciudadana Anti SIDA de Álava	G01042670	Laneko orientazio- eta prestakuntza-programa eta enpresekiko bitartekotza-programa	38,74	26.205
4	Módulo de asistencia psico-social de Deusto-San Ignacio	G48229405	Zigortu eta preso drogazaleak espetxe-erregimenetik kanpo gizarteratzea	30,13	6.450
5	Fundación Izan	G20093415	Droga-mendekotasuna duten pertsonen espetxe- eta gizarteratze-proiektua	38,57	23.118
6	Asociación gitana Gao Lacho Drom	G01027390	Gizarteratzeko eta laneratzeko programa Arabako espetxean eta beste batzuetan preso daudenentzat	45	19.381
7	Asociación para la atención y promoción de colectivos en exclusión social «Izangai»	G95038378	Zigortuak eta presoak gizarteratzeko eta laneratzeko laguntza pertsonalizatua	47,82	6.236
8	Asociación Goiztiri elkarte	G48578017	Emakume presoek zuzendutako Goizargi 2020 egoitza-baliabidea	45,36	21.890
9	Asociación Goiztiri elkarte	G48578017	Presoak eta zigortuak gizarteratzeko eta laneratzeko Goiztiri 2020 laguntza-programa	43,65	6.578
12	Asociación «Arrats»: Prevención, atención, resocialización integral y defensa de derechos de colectivos desfavorecidos	G20662862	Erasotzaileei eta ekintzen egileei zuzendutako arretra psikosozialeko zerbitzua	34	6.507
13	Cruz Roja española	Q2866001G	Askatasunik gabeko migratzaileekin esku hartzea	44,58	10.354
14	Asociación de reinserción social «Sartu-Álava»	G01126127	«Sartu-Álava» elkartearen enplegurako orientazio- eta laguntza-zentroa.	40,22	27.550
15	Fundación Integrando	G95210084	Bilboko espetxeko gizarteratzeko eta laneratzeko Integra 2020 laguntza-plana	41,52	16.890
16	Asociación Salhaketa-Araba	G01237882	Egonaldi luzeko etxebizitza	49,32	4.856

2021eko martxoaren 5a, ostirala

Esp. Zkia.	Entidad	IFK	Proiektua	Puntuazioa	Dirulaguntzaren zenbatekoa (euro)
17	Fundación ADSIS	G81436099	Aurrelan programa (lehen PISL Gizarteratzeko eta Laneratzeko Programa)	39	10.608
18	Fundación ADSIS	G81436099	ADSIS-Bestalde 2020 eguneko zentroak	47,43	14.823
20	Asociación Guipuzcoana de Investigación y Prevención del Abuso de las Drogas (AGIPAD)	G20070165	AGIPADen espetxe-programa eta programa judiciala	37,32	15.971
21	Asociación Susterra para la promoción humana y el desarrollo comunitario	G95005047	Xangar 2020	44,33	16.069
22	Erain elkarteko osasun mentala, S. Coop. Pequeña profesional, de iniciativa social	F95561650	Askatasunaz gabetutako pertsonen arreta psikosoziala eta komunitarioa emateko programa	44,31	9.708
23	Erain elkarteko osasun mentala, S. Coop. Pequeña profesional, de iniciativa social	F95561650	Emakumeenganako indarkeriazko jokabideak dituzten gizonentzako esku-hartze psikosozialeko programa	48,44	11.765
25	Zabaltzen – Sartu Koop. Elkartea, de iniciativa social	F48487748	Zabaltzen enplegurako orientazio- eta laguntza-zentroa	41,34	13.078
26	Agintzari sociedad cooperativa de iniciativa social	F48481923	Sexu-erasotzaileei eta pertsonen aurkako delituengatik zigortutakoei arreta psikologikoa emateko zerbitzua	43	7.253
27	Asociación para la reinserción social Erroak	G20181319	Erroak-Sartu Elkartearen enplegurako orientazio- eta laguntza-zentroak	40	22.263
29	Asoc Amikeco para el tratamiento de la violencia	G95265286	Indarkeriaren tratamendua genero-indarkeriagatiko kondenetan	32	8.028
30	Asociación Amikeco para el tratamiento de la violencia	G95265286	2020ko Lantzen proiektua: baratzte terapeutikoak/lanekoak zigortuentzat eta/edo presoentzat	37	11.792
32	Gaztaroa Sartu Koop. Elk. de iniciativa social	F48211080	Gaztaroa Sartu enplegurako orientazio- eta laguntza-zentroa	38	26.030
33	Fundación Etorikintza	G48169882	Gizarteratze aktiboa espetxearen ordeko neurriak dituzten pertsonentzat	38,15	8.167
34	Fundación Etorikintza	G48169882	Drogaren menpeko diren presoentzat gizarteratzea eta laneratzeara	44,42	17.496
35	Fundación Gizakia	G48473045	Preso eta/edo zigortuta dauden drogaren mendekoen gizarteratzea eta laneratzeara	41,18	17.630

2021eko martxoaren 5a, ostirala

Esp. Zkia.	Entidad	IFK	Proiektua	Puntuazioa	Dirulaguntzaren zenbatekoa (euro)
36	Fed. de Euskadi de Asociaciones de Familiares y Enfermos Psíquicos FEDEFES	G01037431	Ateak Zabaldu, gaixotasun mentala duten pertsonen arreta integrala ematea	48	23.489
37	Asociación Gure Amets Gizarte Elkartea	G20468641	Esku-hartze psikoterapeutiko eta sozioedukatiboko programa	36	14.649
38	Asociación «Bide Sari» de pastoral penitenciaría de Bilbao	G48717045	Hedatu integrazio-etxebizitza	47,15	22.148
39	Asociación Bidesari de pastoral penitenciaría de Bilbao	G48717045	Harrera baimenetan	47,6	8.330
40	Asociación Bide Sari de pastoral penitenciaría de Bilbao	G48717045	Integrazioari laguntzeko zerbitzua	51,43	2.070
41	Asociación claretiana para el desarrollo humano «Sortarazi» de Bilbao	G48852578	Zigortuak eta presoak gizarteratzeko eta laneratzeko programa	36	7.059
42	Asociación «Zubiko» – trebakuntza eta lan sustapena	G95237491	EAEko zigortuak, presoak edo zigorra etenda dutenak gizarteratzeko eta laneratzeko laguntza.	44,24	18.940
Guztira					500.000

II. ERANSKINA

UKATU DIREN ESKABIDEAK

1.– Ezetsi egin da honako dirulaguntza eskaera hau, kontuan hartu baita zer dioen Lan eta Justiziako sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Aginduaren 8.3 artikulua (Agindu horren bidez, espetxeetan edo baldintzapeko askatasunean dauden eta askatasunaz gabetzeko zigorra duten zigortuak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako eta askatasunaz gabetzeko zigorra etenda duten zigortuentzako proiektuetarako dirulaguntzen deialdia egin da). Honela dio aipatutako xedapenak:

«Deialdian guztira erabil daitekeen dirua eta azken urteetako proiektuen gehieneko zenbatekoa kontuan hartuta, erakundeek ezin izango dute aurkeztu 80.000 eurotik gorako proiekturik. Erakunderen batek zenbateko hori gainditzen duen eskabide bakarra aurkeztuz gero, eskabide hori ezetsi egingo da. Erakunderen batek eskabide bat baino gehiago aurkeztu eta sarrera ematen zaien hurrenkeraren arabera aurkeztu duen lehenengo eskabideak gehieneko zenbatekoa gaindituz gero, eskabide guztiak ezetsiko dira. Eskabide horrek zenbatekoa gainditzen ez badu, aurkeztutako eskabideak sarrera ematen zaien hurrenkeraren arabera batuko dira, eta gehieneko zenbatekoa gainditzea dakarren eskabidea ezetsi egingo da, eta, hala badagokio, ondoren aurkeztutakoa.»

Goiztiri Elkarteak 010-ISL-20 espedienteen eskatutako zenbatekoa aurreko 008-ISL-20 eta 009-ISL-20 espedienteetan eskatutako zenbatekoekin batuz gero, 89.759,60 euroko zenbatekora iristen garenez gero, ezetsi egin behar da 010-ISL-20 espedienteari dagokion eskaera, eskaera horrekin gainditzen baita 80.000 euroko gehieneko zenbatekoa:

Esp. zkoa.	Erakunde eskatzailea	IFK	Proiektua	Eskatutako zenbatekoa
10	Asociación Goiztiri Elkarte	G48578017	Presoak eta zigortuak prestatzeko eta gaitzeko Goiztiri 2020 programa	15.800 euro

2.– Ezetsi egin da ondoren zehazten den entitatearen dirulaguntza-eskabidea, balioespen-irizpideen arabera ez baititu 30 puntu gainditu. Dirulaguntza emateko, 30 puntutik gora lortu beharko ditu eskabideak, hala xedatuta baitago Lan eta Justiziako sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Aginduaren 12.3 artikuluan (Agindu horren bidez, espetxeetan edo baldintzapeko askatasunean dauden eta askatasunaz gabetzeko zigorra duten zigortuak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako eta askatasunaz gabetzeko zigorra etenda duten zigortuentzako proiektuetarako dirulaguntzen deialdia egin da):

Esp. zkoa	Erakunde eskatzailea	IFK	Proiektua	Lortutako puntuazioa	Zenbatekoa
11	Asociación Arrats: Prevención, Atención, Resocialización Integral y Defensa de Derechos Colectivos Desfavorecidos	G20662862	Birgizarteratze soziojuridiko-laboraleko prozesuetan laguntza indibidualizatuko Ateak programa	25	0 euro

3.– Ezetsi egiten da honako eskaera hau, uste baita proiektuaren edukia funtsean bat datorrela erakunde berak aurkeztutako 22. eskaerari dagokion proiektuarekin («askatasunik gabeko pertsonei arreta psikosoziala eta komunitarioa ematea»), izan ere, 8 eta 25 urte bitarteko askatasunik gabeko pertsonei arreta psikosoziala eta komunitarioa emateak ez du justifikatzen proiektua bikoiztea:

Esp. zkoa.	Erakunde eskatzailea	IFK	Proiektua	Eskatutako zenbatekoa
24	Erain Elkarteko Osasun Mentala, S. Coop. Pequeña Profesional, de Iniciativa Social	F95561650	Askatasunik gabe dauden gazteentzako arreta psikosoziala eta komunitarioa	25.587,50 euro

2021eko martxoaren 5a, ostirala

4.– Ezetsi egiten da honako dirulaguntza eskaera hau, proiektua ez dagoelako jasota Lan eta Justiziako sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Aginduaren 2. artikuluko 1.a) puntuan aurreikusitako modalitateetako batean ere (Agindu horren bidez, espetxeetan edo baldintzapeko askatasunean dauden zigortuak eta askatasunaz gabetzeko zigorraren betearazpena etenda duten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuetarako dirulaguntzen deialdia egin da):

Esp. zkia.	Erakunde eskatzailea	IFK	Proiektua	Eskatutako zenbatekoa
28	Asociación educativa «Berriztu»	G48469803	Justizia errestitutiboaren proiektua gauzatze-fasean.	30.275,00 euro